

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Hiru unitate baino gehiago erosten dituzten erosleei %20ko deskontua egingo zaie hirugarren unitatean, eta agintzen duten erosketak 300 eurotik gora egiten badu, bidalketa doan izango da.

Web orria autozerbitzuko orri bat izango da, nolabait esatearren. **Bertan, bezero bakoitzak nahi duen Zaku-Jaka zenbakia aukeratu ahal izango du, inoren laguntzarik gabe, baina bezeroarentzako arreta-zerbitzua ere izango du, gure posta elektronikoarekin, galderak egin ahal izateko, eta Gaizkak galdera guztiei erantzun ahal izango die. Bezeroaren eta saltzailearen arteko gutxieneko harremana ezarri nahi dugu.**



Publizitatea egiteko orduan, enpresa txikia denez, ezin dugu gure produktua telebistan argitaratzeko kosturik izan. Hori dela eta, gure produktua Instagramen eta Facebooken argitaratuko dugu, mundu osoan gehien erabiltzen diren sare sozialetako bi baitira. Gainera, doahainik da kontu bat sortzea eta zure produktua argitaratzea.

Bi sare sozial horietan gure produktuaren publizitatea egitean, adin handiko bezeroengana irits gaitezke. Instagram erabiltzen duten adinez nagusienek erabiltzen duten sare soziala da Facebook.



Instagramen, erabiltzaileen %37k 16 eta 24 urte bitartean dituzte, eta %71k 25 eta 34 urte bitartean.



Bestalde, Facebooken erabiltzaileen %52k 18-39 urte dituzte, eta %42k 40-64 urte.

Laburbilduz, gure publizitateak zero kostua izango du, eta, gainera, pertsona-kopuru handi batera eta adin askotara iritsi gaitzake. **Gainera, sare sozialek beste herrialde batzuetako pertsoneri gure produktua saltzeko aukera ematen digute; beraz, gure produktua Espainian saltzeaz gain, mundu osoan ere sal dezakegu**, eta horrek gure irabaziak esponentzialki handitzea ekarriko luke.

